

**EUSKAL HERRIKO ELIZAREN
HAGIOGRAFI ETA BIOGRAFI LABUR-LABURRAK
(XVI-XX. MENDEAK)**

Egiatan, izugarritzko garrantzia du herri baten edo Eliza baten historian pertsonaia bikainen gogoramen historikoak. Hau hala delako, mendeetako historiografian, herri eta giza elkarten historiak haietako pertsonaia ospetsuen ikuspegi eta euskarrien gainean oinarritu dira. Metodo hau, gaur egun, historia bideratzen duten giza errealitateak hain ugariak izanik, osotasun eta zehaztasun gutxikotzat jotzen delarik.

Hala ere, metodo bat den heinean, beste zenbaitek bezala badu izateko oinarririk, batez ere, gizarte ingurumariko askotariko egoerak kontutan hartzen badira eta, bereziki, Eliza eta gizarteko ideien historia nabarmendu nahi bada; sarritan, Elizan, izpirituzko bizitzaren benetako eragile diren pertsonaia ospetsu karismatikoek bultzaturiko ideia eta mugimendu izpiritulak izaten direlako.

Eremu jeneralean bezala, Euskal Herrian ere, Santuek eta beste pertsona bikainek eragipen handia izan dute eta gaur egun ere badute, Elizan eta Euskal kristau elkarteetan bizi-bizi dirauten mugimendu sozial eta izpiritualen sortzaile izan bait dira. Guzti hau, bai Euskal Elizaren barruko kristau iharduerari dagokionez eta baita *Ad extra* edo kanpoko iharduerari, Euskal Herriko mugetatik kanpo mundu zabalean egindakoari dagokionez ere.

Kapitulu labur honetan santuak aipatu ahal izango ditugu soilik, haien kristau ihardueraren gunerik garrantztsuenak laburbilduz. Baina santu edo pertsona bikain horiek bizi izandako zenbait une historiko, haien nortasunaren iturburu izandakoak ere jarriko ditugu agerian.

Batzuk Euskal Herrian bizi izan diren santuak ditugu eta beste batzuk kanpoan bizi izan zirela hemen ia-ia iharduerarik izan ez zutenak; guztiak izango ditugu kontutan; baina, batez ere, eragin oso nabaria Euskal Herrian edo Eliza Unibertsalean izan dutenak aztertuko ditugu. Horrela, adibidez, ez dira elkarrekin parekatzekoak Rafaela Ibarra donearen eta Mitxel Gariakoits-en iharduerak; ez dute eragin bera izan Joan de Zumarraga fraideak, San Frantziskok, Loiolako San Inazioak eta abarrek edo eta aintzinako santu eta martiriek.

Santu eta pertsonaia ospetsu hauen berri ematen hasi orduko, komenigarri da, hala ere, gure historian urrats-bide izan diren gizon eta emakumeei buruzko ikerlan orokorrak aipatzea. (Hemen ez ditut sartzen hainbat eta hainbat kristau edo elizgizon euskaldun euren ohorea idazle bezala irabazi dutenak, edo musikagile bezala, etab.).

Lehenengo eta behin, eginak izan diren lan bio-bibliografiko orokor eta nazional handiak edo eta erlijio-ordenei, hala nola, Agustindar, Beneditar, Kartusiar, Zistertar, Premontretar, Kaputxino, Karmeldar, Hirukoiztar, Domingotar, Eskolapio, Frantziskotar, Josulagun, Mesedetako etabarri buruzkoak, batez ere, Euskal Herriko erlijio-ordenei buruzko datu bereziak aipatu genezake.

Era berean, kontutan hartzekoak dira Errioxa, Nafarroa, Bizkaia, Gipuzkoa, Araba eta Iparraldeari buruzko ikerlan orokorrak.

Badira Euskal Herriko santu eta pertsonaiak, probintziko mugetatik kanpo hartuz, aztertzen dituzten beste lan batzu ere, bereziki Labayru-renak, F. Garriga-ren idazlanak etab.

Orain Euskal Elizaren historiako izenik garrantzitsuenak berrikusiko ditugu.

XV. mende artekoei buruz ez dut idatziko, lana ez luzatzearren; aipatu baizik ez dut egingo: Euskal Herrikoak direnak edo Euskal Herriaz nolabaiteko lotura dutenak: Fermin eta Saturnino santuak (III- ?), Emeterio eta Zelodonio santuak (III-IV.m.), Aurelio Prudentzio Klemente (348-405), Felix santua (V-VI.m.), Millan Kukulako santua (470/3-574) eta haren jarraitzaileak (VI-VII), Grat santua (V-VI.m.), Armentiaiko Prudentzio santua (VI.m.), Rictrudis santua (VII.m.), Amando santua (VII.m.) Eurosia santua (-851), Nunilo eta Alodia santuak (IX.m.), Leon santua (IX.m. ?)..., Virila santua (870-950), Iñigo santua (-1068), Silos-ko Domingo santua (c. 1000-1073), Beremundo santua (c. 1020-1093), Kaltzada-ko Domingo santua (XI.m.), Fitero-ko Erraimundo santua (-1160), Paris edo Artaxonako Pedro (-1193), Rada-ko Rodrigo Gimenez (c. 1170-1247), Urraca Lopez de Haro dohatsua (c. 1170-1262), Guillaume de Pierre Godin (1260-1336), Gasteizko Paskual martiria (-1342 [1344?]), Armalt de Barbazan (-1355), Martin de Zalba (1337-1403), Juan de Zorroza (1416-1462), etab.

XVI. MENDEA

Gertakari mota ezberdinetan hain aberatsa dugun mende hau, euskaldun unibertsalen, nortasun handiko pertsona ospetsu eta ugarien mendea dugu. Hain isila izan zen XV. mendearen ondoren, bat-bateko leherketa handi baten antzekoa: batez ere munduan zehar sakabanatu ziren hainbat pertsona erlijiosoren olde indartsu gisa agertzen zaigu.

Mende honen ezaugarriak, aurreko mendetik zetorren elizbarrutietako gainbehera, katolikoaren erreforma sakona eta protestantismoaren erantzun indartsua ditugu.

Hain zuzen ere, erlijio nahiz gizarte mailan, eskualde, nazio, nazioarteko (nazio-burrukez beterik) dardarazko gertakari uga-

riren mendea, hainbat gerrate izan zituena eta materia nahiz izpiritu arloan lorpen eta konkista handiak egin zituzten gizonez betea.

Euskaldunek buru-belarri esku hartu zuten erlijio eta gizarte-ko gertakarietan, nazio konkistetan nahiz izpirituzko konkistetan: Amerikaren konkistan, Euskal Herri eta Europako gerrateetan, Europako katolizismoaren erreforman, misio eta literatura-teologia ihardueratan.

Francisco de Vitoria, Juan de Zumarraga, Loiolako Inazio santua, Xabierko Frantzisko santua, Navarrus doktorea (Azpilkueta), Bartolome Carranza... bezalako gizon unibertsalek distiratsu agertu zuten euskaldunen presentzia mundu osoan zehar. Euskaldun ospetsuen mendea da.

Euskaldunen hedapenak ondorio garrantzitsuak izan zituen barruan, hala nola, ekonomia, zientzia-inteligentzia, arte eta, batez ere, erlijio arloko iharduera biziagoa. Eta, bereziki, erlijio-ordenen berrikuntza eta Josulagunen agerkundea Euskal Herriko eta Europa osoko izpiritu berrikuntzarako eraldaketa-bide gertatu ziren.

1) *Francisco de Vitoria (+1548)*

Haren jaioterriari buruzko eztabaida, Gasteiz ala Burgos izan ote zen, alde batetara utziko dugu, garbi dagoelarik Pedro de Vitoria izeneko arabar baten semea izan zela. Teologo handi honek norabide berriak ekarri zizkion teologiako ikasketa eta testuei; Europa osoan oso preziatua zen irakasle argitsu eta bikain hau Nazioarteko Zuzenbidearen Aita bilakatu zen. Haren ekarpenak gai moral eta juridikoetara zuzenduak ziren. Hura hil eta gero argitaratutako lan garrantzitsuari *Relectiones Theologicae* deritzo. Euskaldun honen eragina eta ospea oso handiak izan dira Europa osoan.

2) *Juan de Zumarraga beneragarria (+1548)*

Durangoko seme hau izugarrizko nortasun eta iharduera izandakoa dugu. Arantzazuko komentuan sarturik, frantzisko-

tar egin zen. Beste zenbait karguren artean, probintziala izan zen. 1548.ean Mexikoko lehen artzapezpiku. Aita Santuaren Inkistore ere izan zen; oso gizon apala, santuen tankerakoa, txiroen maitalea eta indioen defendatzailea, misio-iharduera handikoa: indioentzat eskola eta ikastetxe ospetsuak bultzatu zituen; haur indioentzako eskolak; frantziskotarren Tlaltelolcoko Santiago ikastetxearen fundatzaileen artekoa (1536); Unibertsitate bat eraikitzea proiektatu zuen (1539). Amerikako lehen inprimategia sortu zuen (1539). Bere etxean Mundu Berriko lehen biblioteka garrantzitsua antolatu zuen.

Mexikon hil zen 1548.ean, santu baten antzera, txiro. Nahikoa litzateke, gizatasun, jakinduria eta erlijotasun aldetik begiraturik, hau bezalako nortasun handiko pertsona bat euskaldunon nazio txikia ospez betetzeko. Areago oraindik, itxura batean ez da Euskal Herriko, Espainiako eta Amerikako pertsona bikainen artean zor zaion lekuan jarria izan.

3) Xabierko Frantzisko santua (1506-1552)

Joan Jasso eta Maria de Azpilkueta senar-emazteen bostgarren eta azken seme hau Xabierko gazteluan jaio zen 1506.ean. Kristau eta letretako heziera ona hartu zuen. 1525.ean Parisko unibertsitatera joan zen, 11 urte bertan emanik. Filosofia irakatsi zuen. Hartua zuen eliz karrera bikaina egiteko bidea; baina, haren adiskide eta familiartekoen gizarte eta erlijio arloko gertakari batzu zirela tarteko eta, batez ere, euskal sorterriz kidea zuen Loiolako Inazioren proiektuak erakarririk, honen jarraitzaile egin zen eta biek beste bost lagunekin batera talde bat osatu eta, 1534.ean, Aita Santuaren esanetara jartzea erabaki zuten, euren buruak txirotasun eta kastitatezko apostolutza-bizitzari eskainiz. 1537.ean egin zen apaiz. Erroman parte hartu zuen Jesusen lagundiaren fundazioa onartu zen unean (1540). 1541.ean hartu zuen Indiarako bidea.

Ezagutu ohi den apostolutza eta misio-iharduerarik bizienerarikoa burutu zuen. Barneko karisma-doaiak eraginik, itsaso,

irla eta nazioak zeharkatu zituen; haren apostolutza-garrak ez zuen mugarik ezagutu: Portugaldarren kolonian txiro, espetxeratu eta gaisoei laguntzen eta kristau bidea irakasten hasi zen. Pesquería-tik, Paravas-etik iragaten da bertako hizkuntza ikasten. Jarraian Travancor-eko erreinura aldatu zen. Haren santutasun eta mirarigile-ospeak Europako hainbat pertsona erakarri zuen, hari jarraitzeko gogo bizia haiengan sortuz. 1545.ean Madras-en zegoen. Itsasoz Malaka-kō penintsulara joan eta ebanjelioa zabaltzen aritu zen; jarraian Borneo, Java etabarretara iragan zen Moro irletaraino (1546-1547), han ebanjelioa zabaltzeari ekin eta gero berriro itzuli zen Malaka-ra. Ondoren, Japoniara joan zen itsasoz; Kagoshima-ra heldu eta hizkuntza ikasi eta kristau talde bat sortu zuen; beste horrenbeste egin zuen beste herri batzutan ere (1550). 1552.ean Txinara joatea erabaki zuen; heriotzak Santxian irlan moztu zuen haren apostolutza eta karismaz beteriko bizitza. Haren gorputz ustelgabea Goa-ra eramana izan zen. 1927.ean Misio katoliko guztien zaindari izendatua izan zen.

Xabierko Frantzisko, kristauen arteko misiolaririk handienetarikoa izan zen. Euskaldun unibertsala. Pertsona maitagarri eta erakargarria. Barruko apostolu-gar bizia, Jainkoagan zuen konfidantza handiarekin eta Kristori eta Elizari zien maitasunarekin elkartzen jakin zuena.

4) *Loiolako Inazio santua (1491-1556)*

Beltran Yáñez de Oñaz Loyola eta Maria Sánchez de Licona (dirudienez Ondarrukoa) ezkontideen azken semea izan zen Iñigok kristau heziera sakona hartu zuen; gaztaroan zaldun edo armagizonen bizimodua egiteari ekin zion. Berezko dohain ederreko gazte, ekintzaile, eskuzabal, bihotz handikoa,... auzitegiraino eramana zuten bihurrikeria batzuk ere izandako gaztea. 1517.ean Antonio Manrique, Nafarroako erretordearen zerbitzupean jarri zen; zenbait gatazkatan esku hartu zuen, eta Iruñeko gaztelua defendatzen ziharduela, kanoi-bala batek zauritu zuen zangoetan (1521); Gorteko zaldun gisa eta ez kapitain gisa ari zen burruka-

raren «Gogo-ihardunak» lan ospetsuen «Sitz in Leben» denak. Erroma, Venezia, Txipre-n zehar, Palestinara joan zen toki santuei ikustaldia egitera. Itzulterakoan, 33 urte zituela ikasten hasi zen zenbait unibertsitatetan parte hartuz; 1528.ean? Parisen zegoen. Han, beste euskaldun santu batekin, Xabierko Franziskorekin eta beste bost lagunekin batera Aita Santuak nahi zuen tokian apostolutzan lan egiteko botua egin zuen. Jesusen lagundiaren fundazioa onartua izan ondoren (1540), haren lagunak munduan zehar sakabanatu ziren.

Inazio Erroman geratu zen Aita Santuaren eta bere lagundiaren zerbitzutan. Haur, txiro eta abarri kristau-bidea irakasten iharduteaz gainera, Erroma eliz-ikaskuntzen zentro bihurtzen saiatu zen: zenbait doktorek osaturiko talde batekin Erromako Ikastetxea, gaur egun «Unibertsitate Gregoriarra» deritzona eraiki zun (1551). Haren ondoan «Collegium Germanicum» deitua sortu zen. Bere Lagundiari dagokionean, Jesusen lagundiko konstituzioak idatzi zituen.

Itzelezkoa izan zen Inazio santuak erlijio, kultura eta zientzi bizitzari Europa osoan eta munduan zehar emandako bultzada, protestantismoari aurre egin zion mugimendu berririk garrantzitsuena bilakatzeraino; izatez irribarretsu, lasai, bihotzbera eta hunkiorra zen, luma interesatu batzu deskribatu izan dutenetik oso ezberdina.

5) *Juan Bernal Díaz de Luco (1495-1556)*

Ezkontzaz kanpoko semea, oso gaztetarik hasi zen Zuzenbidea ikasten. 1520.ean argitaratu zuen zuzenbide gaiei buruzko lehen liburua. 1522.ean Salamanca-ko apezpikuaren bikarioa zen. 1525-1526.ean Tavera kardinalaren zerbitzuan ari zen. 1535.ean sagaratu zuten apaiz. Indietako aholkulari izan zen eta oso kezkatu ari zen nola eraman ebanjelioa mundu berrira, Loiolako Inazio santuak «indioen aingerua» deitu zuelarik. 1545.ean Kalahorrako apezpiku izendatu zuten, heriotzerarte horretan iraun zuelarik.

Zuzenbide-teologia-pastoralgintza gaien idazle izateaz gainera, haren iharduera elizbarrutiko zenbait sinodotan eta erreforma-ahaleginetan nabarmendu zen. Baina maila unibertsalean Trento-ko kontzilioan izandako eskuhartze eraginkorra zela eta gailendu zen, hainbat gaitan esku hartu bait zuen. Kalahorrako apezpiku-ihardunean aparteko pastoralgintza-iharduera burutu zuen beste apezpiku batzuk, arrazoi ezberdinak zirela tarteko, bertan behera utzita eduki zuten Euskal Herriari zegokionean. Apezpiku erreformatzaile handia eta letren eta pastoralgintza-ekintzen adiskide izan zen.

6) *Francisco de Navarra (c. 1498-1563)*

Pedro de Navarra mariskalaren sasikumea izan zen nafar hau; Kalonje Agustindarren jantzia hartu eta hogeituro urte zitueneko Orreagako priore izendatu zuten; ikasketa-ihardun oso zabala izan zuen, bere ikasketak Toulouse, Paris (?) eta Salamanca-n egin bait zituen.

Nolabaiteko entzute unibertsala, Trentoko kontzilioan apezpiku partehartzaile gisa izateak eman zion; bizikiro parte hartu zuen Trento-ko kontzilioa Bolonia-ra aldatzearen aurkako jarrerak kritikoa adieraziz. Valentziako artzapezpiku izanik, ahalegin guztiak egin zituen moriskoak kristautasunera ekartzen, horren ondorioz Trentoko bigarren ihardunaldian ezin izan zuelarik parterik hartu. Nazioarteko mailan zuen nortasun eraginkorra Enperadoreak sarritan bere aholkulari gisa izatean ere antzematen da.

7) *Juan de Mayorga eta Esteban de Zudaire (+1570)*

Donibane Garazikoa zen Juan Navarro, Jesusen Lagundian sartu zen; pintatzailea zen eta Brasilerara bidali zuten misiolari. Esteban de Zudaire, bizibidez brodatzailea eta komunitateko jantzizaina; hau ere jesuita. Biak, holandar kalbinistek haien espedizioa eraso ondoren, bizirik itsasora jaurtiak izan ziren. Gregorio XV.ak martiriei dagokien kultua ematea baimendu zuen.

8) *Antonio de Araoz (1515-1573)*

Bergaran jaioa eta Loiolako Inazio santuaren loba; Inazio santuaren lagunen lehen taldean parte hartu zuen Lagundia onartua izan zen datatik (1539-1540). Espainiara iragan zen lehen jesuita izan zen. Sermolaria (Gipuzkoan ere bai) eta Lagundiaren nagusia Espainian, Jesusen Lagundiko hainbat eta haibat fundaziotan parte hartu zuen.

9) *Bartolomé Carranza (c. 1503-1576)*

Mirandan jaiotako nafar hau Euskal Herriko ez ezik bere garaiko Europako pertsonarik ospetsuenetarikoa dugu.

Alcalá-n egin zituen ikasketak; 16 urte zituela sartu zen Domingotarren Ordenan; ikasketak Salamanca eta Valladolid-en jarraitu zituen, irakasle-ihardunean filosofi eta teologi gaiak irakatsi zituelarik. Uko egin zion Peruko mitra eskaintzari eta ge-roago Kanarietakoari.

Trentoko kontzilioan parte hartu zuen. Zenbait liburu idatzi zituen eliz zientziei buruz, oso interesgarria izan zelarik *De necessaria residentia episcoporum* idazlana, 1547.ean, kontzilio garaian idatzia. Felipe II.ak Ingalaterrara joan zedila nahi zuen, han fede katolikoaren aldeko apostolutza-lan bikaina burutu zuelarik. Eta errege berberak behin eta berriro eskatuz, Toledoko artzapezpikutza onartu zuen, bertan berehala pastoral-ekintza bizi-biziari eman ziolarik.

Baina iharduera eder hau eten egin zuen, batez ere bere idazlanengatik egin zitzaion eta 16 urte (1559-1576) iraun zuen prozesu batek; zentzugabekeriak beterikoa izan zen prozesu hau, horretan interes pertsonal nahiz politikoak, inkisidoreen izen ona eta heresi biltzaileen asmo zintzoak gurutzatu bait ziren; eta hori, guztiz ortodoxo, benetako kristau eta fede katoliko eta Elizaren maitale zintzoa izan zen gizon baten aurka; Carranzaren proposamenen aurrean, hizkuntza eta jarrera desberdinek auzia nahasiago bihurtzen zuten; gainera haren proposa-

menak testuingurutik ateraz, nahaste-borraste itzela sortzeko arriskua zegoen.

Prozesua Erromara eramán zuten; Pio V.ak Carranza-ren aldeko epaia zuen prest; baina haren heriotzeak epaia Gregorio XIII.aren eskutan utzi zuen; honek kondenatu egin zuen, besteak beste, presio politiko-diplomatikoak horretara eraginda (1576); baina kondena, suspectus de haeresi izan zen soilik; horregatik Martin de Azpilkueta, euskaldun defendatzaileak garaipentzat jo zuen, ez bait zen heresia bakar batetan ere convicto y confeso kondenatua izan. Egun batzu geroago hil zen Carranza, eta haren hilobi gainean, egun batzuk lehenago kondenatu zuen Aita Santu berberak, goraipemenezko inskripzio esanguratsu bat jar erazi zuen.

10) Martin de Azpilcueta (1492-1586)

Barasoainen jaiotako Baztango aiton semeen familiako hau, munduan zehar, «Doctor Navarrus» izenaz ezagutua zen; Alcalá-n ikasi zituen filosofia eta teologia eta geroago Toulouse-n zuenbide kanonikoa eta zibila. Irakasle izan zen Toulouse-n; 1515.ean apaiz sagaratua, Orreagako laterandar kalonjeen etxean sartu zen. Salamanca-ko unibertsitatean irakasle izan zen, ospe eta entzute handia lortuz. Geroago Coimbra-ko unibertsitatean. 1555.ean berriro itzuli zen Espainiara. 60 urte eginak zituela, bere loba zuen Xabierko Frantzizkorekin, Indiarra misiolari joan nahi izan zuen, baina honek ez zion utzi, oso zaharra zelako.

Hainbat erregek eta eliza nahiz politikako pertsona askok aholkulari izan zu-



ten, kanonei eta teologiari buruzko gaietan batez ere. Aita Santuek ere eskatu eta eskertu zioten bere zerbitzuak. Hainbat idazki argitaratu zituen teologiari, zuzenbide kanonikoari nahiz izpirituzko gaietarako buruz. Carranzaren prozesu luzean haren defendatzaile izan zen. Pio V.ak kardinale egin nahi izan zuen, baina ez zen Espainiako erregearen gogokoa eta enbaxadoreen bidez izendatze horren aurka egin zuen: nafarra, frantziarra eta abar izatea egozten zizkioten. -

Kanonista, teologo eta santua izanik, entzute handia lortu ondoren, eragin itzela izan zuen Europan. 1586.ean santutasun-ospea zuela hil zen; eta santutasun-ospe hori zela eta, haren hileta inguruan gertatu zirenak ikusirik, honako inskripzio hau jarri zioten hilobian: «Emen datza beatua Martin Azpilkueta Nafarra eliz-lege eta giza-legeetan jakitun andia, Pio V, Gregorio XIII eta Sixto V garrenak ain maite izana, alde guztietako errientzat ain maitagarria, gure gaxotegiaren ongillea, bere jakituriaren agergerri ainbat liburu argitaratua».

11) Martin de la Ascensión santua (+1597)

Santu honi buruzko bibliografi atal nagusia jaiotzez Bergarako ala Beasaingoa den azaltzeko idatzia da; antzinako eskuskriburen batetako datuetan oinarrituz, Ibarrangelukoa (Bizkaia) ote zen ere pentsatu izan da, baina azken hau baztertu egin behar da.

Alcalá-ko unibertsitatean egin zituen ikasketak. Frantziskotarren Ordenan sartu zen eta 1586.ean erlijioso-botuak egin. Filosofia irakatsi zuen Ordenako komentuan. Pedro Ortiz, Filipina Irletako misioetarako jende bila hasi zenean, izena eman zuen Martinek. Eta 1592.ean itsaroratzeko alferreko ahalegina egin ondoren, 1593-1594.ean Japoniara bidali zuten eta han japoniera ikasi eta erabili zuen. Txiro eta gaisoen aldeko lanean ihardun zuen. 1597.eko otsailaren 5ean jasan zuen martiritza Kristoren testigantza bizikiro emanez.

12) Jose de Anchieta doatsua (1534-1597)

Euskal jatorrikoa, baina Tenerifen jaioa; misiolari josulaguna eta Brasil-go apostolu handia; han kristau ebanjelizatze osoa bultzatu zuen, hots, irakaskintza, sakramentuak, kultura eta erlijio-iharduera handia indioen hizkuntzan; bakegilea eta elkar-teen antolatzailea eta abar izan zen. Aitzindaria, apostolu handia eta misiolaria.

Brasil-go elizaren aita, nazioaren eraikitzaile, nazioko zaindaria deitzen diote. 1980.ean doatsu aldarrikatua.

13) Martin Ignacio de Loyola (+1606)

Eibarren jaiotako Loiolako Inazio santuaren loba hau, euskal misiolari handienetakoa da. Frantzizkotar egin zen. Misiolari izan zen Ekialde Urrunean: Filipina Irletan (1585), Txinan preso sartu zuten eta ondoren Europara etorri zen, geroago berriro Txinara itzultzeko (1585). Gero Ameriketara, Paraguay-en izan zen misiolari; 1601.ean Asunción hiriko apezpiku izendatu zuten.

14) Beste pertsona ospetsu batzuk:

Badira aipamena merezi duten beste zenbait apaiz, erlijioso, laiko, politikari-militar, artista etab., kristau iharduera Euskal Herrian nahiz Euskal Herritik kanpo burutu izan duten kristauak; hemen, hainbesteren artean batzuk aipatuko ditut soilik, bereziki apostolutzan aritu izan zirenak eta haietaz datu bibliografikoak ditugunak.

Peralta-ko Ramiro de Goñi, kanonista (1481-1554); Erronkari-ko Miguel Ochoa, josulaguna (+1575); Azpeitiako Martin Zurbarano, apezpikua (-1516); Gasteizko Martin de Olave, josulaguna, Loiolako Inazio santuaren jarraitzailea (+1556); Andres de Urdaneta gipuzkoarra (1508-1568), zenbait espedizio militarretan soldadu eta kapitaina izan ondoren, Agustindarren Ordenan sartu eta misiolari errime eta handi bilakatu zena; Martin Egusquiza, bilbotarra, Indian misiolari izan zena 1535-

1572); Martin de Rada (1533-1578), Filipina irletan misiolari agustindarra izana; Diego de Arana, bilbotarra, misiolari agustindarra (+1595); Gordexolako (Bizkaia) Francisco de Berascola (1564-1597), misiolari frantziskotarra, Floridan martiritza jasan zuena; Gasteizko Jeronimo de Mendieta, misiolari eta historiagile, frantziskotarra; Antonio de Alcega (+1609): lehenengo, gobernadorea, geroago frantziskotarra eta azkenik Venezuelako apezpikua izana, etab.

XVII. MENDEA

Mende honetan ere fruitu hobeezinak eman zituen Euskal Herriko erlijiotasunak, baina garai honetako pertsonarik aipagarrienak ez dira hain ugariak ez eta aurreko mendekoak bezain bikainak ere, maila historikoari bagagozkio behintzat. Mende honetan, aurreko mendeko pertsona karismadunen izpirituaeren jarraipena, misio-ikuspegiari dagokionean ageri zaigu batez ere:

1) Juan de Jesus Maria (Ustarroz) (1564-1615)

Kalahorrako seme hau 1582.ean egin zen Karmeldar Oinuts. Alcalá-ko unibertsitatean egin zituen ikasketak eta geroago Genoan. Mistiko hau luzaroan fraidegaien maisu eta Karmeldar Oinutsen Italiako Kongregazioaren sortzailetarikoa izan genuen. Ordenako jeneral izan zen; hainbat idazlan izpiritual idatzi zituen. Gizon santua eta Erroman maitatua izan zen; haren gorputza ustelgabe geratu zen.

2) Jeronimo Javier (Espeleta) 1549-1617)

Beiren jaioa eta Xaberko Frantzisko santuaren loba, Jesusen Lagundiko egin zen 1568.ean. Ikasketak egin ondoren misiolari lanetan aritu zen Indian. Mogol Handiaren lurraldeetan ihardun zuen misio-lanetan. Misiolari handi honek liburuak ere idatzi zituen.

3) *Izpiritu Santuaren Tomas Zumarraga (1577-1622) eta Alonso Mena (1578-1622) doatsuak.*

Tomas Gasteizkoa zen eta Alonso Logroñokoa; biak Dominogotarren Ordenakoak, misiolariak Japonian; bertan, misioekintza handia burutu ondoren, martiritza jasan zuten (1622), gasteiztarrak Socobata-n eta Logroñoarrak Nagasaki-n; 1867.ean doatsu aitortuak izan ziren.

4) *Domingo de Jesus Maria (Ruzola) (1559-1630)*

Calatayud-en jaiotako euskaldun hau XVII. mendean Europan izandako pertsonarik ospetsuenetakoa da. 1574.ean Karmeldar Zaharren Ordenan sartu zen, gero 1589-1590.ean Karmeldar Teresiarren edo Karmeldar Berriztatuen taldera aldaturik.

Iharduera handia burutu zuen Espainian zehar. 1604.ean Italiara joan zen, bertan beti Karmeldar Teresiarren (Berriztatuen) Kongregazioko Zuzendaritzan parte hartuz, behin Ordenako nagusi eta sei alditan Definitore edo Aholkulari nagusi izan zelarik. Europako nazio gehienetan zehar burutu zuen ekintza apostoliko eta karismatikoa harrigarria izan zen: hainbat errege, printze eta Aita Santuk jo izan zuten harengana (haietariko batzuri ongi hiltzen lagundu zelarik); Europako zenbait agintarik eskaturik, Aita Santuaren ordezkari izan zen hainbat gorte europarretan; «Propaganda Fidei» delakoaren bultzatzaile sutua izan zen. Mirarigile ospea izan zuen; karismadun eta mirarigile izateari dagokien iharduerak eta Europan Katolizismoaren berreraikitzaile izateak, oso pertsona ospetsu eta eragin handiko bihurtu zuten. Horretaz gainera, benetan izugarria izan zen Europako nazioetan zehar Karmeldarren etxeak eta probintziak eraikitzen egin zuen lana. Azkenik, idazle-lanetan ere aritu zela esatea baino ez dugu, haren nortasuna zein bikaina zen antzemateko. Aita Santuaren aginduz, zeregin garrantzitsuak betetzen ziharduela, Enperadorearen Gortean hil zen Vienna-n, santu eta mirarigile-ospe handia zuela.

5) *Domingo bañez Erkizia (+1633) eta Miguel Aozaraza (+1637) santuak*

Domingo Errexilgoa zen (1589) eta Migel Oñatikoa (1589); biak Domingotarren Ordenako egin ziren eta misio-lanetara Ekialde Urrunera bidaliak izan ziren, Japonian martiritza jasan zutelarik, Domingok 1633.ean eta Migel-ek 1637.ean. Biak 1987.ean santu aitortuak izan ziren.

Jean Duvergier
de Hauranne.



6) *Jean Duvergier de Hauranne (et d'Echeverry), «Saint Cyran» (1581-1643)*

Baionatar hau mundu zabalean ezaguna dugu Jansenius-ekin batera, Europako katolizismoaren barruan garrantzi handiko izpirituzko mugimendua izan zen lehen garaiko jansenismoaren aita izan zelako.

Gaztaroan Agen-go josulagunetan, Parisko unibertsitatean eta Lovaniako josulagunen ikastetxean egin zituen ikasketak. Azken hirian Cornelius Jansenius ezagutu zuen eta urte batzuk elkarrekin eman zituzten. Garaiko Frantziako izpiritu nahiz politika-arloan ospetsu ziren hainbat pertsonarekin harremanetan izanik, Frantzia osoan izan zuen eragina, bai erlijio katolikoan eta bai politika-bizitzan; horrela Port-Royal zentrorik garrantzitsuenetarikoa bilakatu zen, moral-arloan itzal handia zuelarik. Baina haren bizitza sarritan eztabaida eta polemika izpiritual artean iragan zen; ezagutu zutenek eritzi ezberdinak agertu zituzten hari buruz. Egoera hauen artean izpiritu-gaiei buruzko liburuak idatziz literatur iharduera-ri ere ekin zion.

7) *Francisco de Pamplona (Tiburcio Redín, 1597-1651)*

Iruñean jaiotako Tiburcio Redín y Cruzat-ek gaztaroan armakarrera hautatu zuen. Pertsona benturazalea zenez gero, laster egin zen ospetsu bere gerra-ekintzak zirela eta. Baina 1637.ean haren bizitzak norabide zeharo ezberdina hartu zuen: Kaputxi-noen Ordenako egin zen Francisco de Pamplona izena hartuz. Zenbait zertzeladaren artean, 1642.ean, Congo-rako misiolari-espeditio batetan sartzea lortu zuen. Orduz geroztik, misiolari ez ezik, benetako misio-antolatzaile bilakatu zen Afrika eta Ameriketara; Erromarekin eta Espainiako Gortearekin, oso maitate bait zuten hemen, harreman estuak izan zituen.

Itsasoz eginiko halako bidaia batetan hil zen Guaira-n, beste misio berezi batetan Madrilera eta Erromara zetorrela. Kaputxi-

noentzat aparteko gizona izan zen, geroago Amerikan izango zituzten misioetarako.

8) *Beste zenbait pertsona ospetsu*

Garrantzi txikiagokoak izan ziren beste batzuren artean honakook aipa ditzakegu: Martin Arbide, donostiar frantziskotarra, Arizonako lehen martiria (+1632); Baigorriko Bertrand d'Echaus (+1641), eragipen handiko gizona eta Baionako apezpikua; Iruñeko Jacinta de Navarra, mistikoa, zistertar abatesa (1602-1656); Juan Palafox eta Mendoza (1600-1659), Fiteroko semea, apezpikua eta idazlea; Gasteizen jaiotako Micaela Aguirre, moja domingotarra (1603-1677); Pedro Bardeci (1640-1702), Isabakoa (Nafarroa), josulagun, misiolari eta martiria, etab.

XVIII. MENDEA

Bereziki XVI. mendean izandako aparteko pertsona handi ugarien eta XVII. mendeko batzuren ondoren, urripen handia gertatu zen XVIII. mendean. Garai honetan sermolari herritar batzuk nabarmendu ziren:

1) *Agustin Kardaberaz (1703-1770)*

Hernaniko seme hau, Valladolid-eko Zuzenbide Fakultatean ikasle zela sartu zen Jesusen Lagundian. Izpirituzko bizitza sakona bizi izan zuen; oraindik gazte, filosofia eta teologiako ikasle zela, hasi zen liburu izpiritualak idazten. Gramatika, filosofia eta teologiako irakasle izan zen. Baina sermoigintzagatik lortu zuen osperik handiena, baita jende ugariaren izpiritu-bizitzan eragin handia izatea ere. Euskal Herriko, batez ere Gipuzkoako, herri gehienetan sermoiak egiten ibilia eta santutasunfamagatik toki askotatik izan ohi zituen deiak. Izpiritualitateari buruzko liburuak idatzi zituen euskaraz helburu apostolikoak eraginik. Jesusen Bihotz guztiz Santuarenganako debozioaren aitzindaria, haren sermolari handia izan zen. Espainian Lagundia kendua izan zenean (1767), atzerrira joan beharra izan

zuen, handik laster, 1770.ean, Italian hil zelarik.

2) *Pedro Antonio Calatayud (1689-1773)*

Agustin Kardaberaz-en maisu izan zen Iruinxeme hau ere josalagun izan zen eta haren antzeko bizitza izan zuen: Irakas-kuntza eta herri-misioetako iharduera ugaria txandatu zituen, honek ere Jesusen Bihotz guztiz Santuaren debozioa bultzatu zuelarik;

bien arteko alde bakarra, Agustin Euskal Herrian aritu zen bitartean, Pedro Antonio Espainia osoan zehar aritu zela; horregatik ospe handiagoa lortu zuen. Honek ere izpiritualitateari buruzko hainbat liburu idatzi zituen. Santu antzera hil zen atzerrian, Bolonian.

3) *P. Clement d'Ascain (Jean Duhalde) (1693-1781)*

Kardaberaz eta Calatayud, Hegoaldeko bi euskaldunen antzeko bat dugu Iparraldean ere: Jean Duhalde, Kaputxinoen Ordenan Clement d'Ascain zeritzana. Sermoigintzarako aparte-ko dohainak zitun eta horretan aritu zen oso-osoan, Frantzia osoan garaiko sermoilarik hoberen ospea izan zuelarik. Haren bizitzan otoitzaldiak eta laztasuna nabaritzen ziren; Baionako etxeko nagusi izan zen, 86 urte zituela bertan hil zelarik.



Agustín de Cardaberaz.

4) *Jean Daguerre (1701-1785)*

Larresoron jaioa, Bordelen teologia doktoradutza lortu ondoren, batez ere Larresoroko seminarioa eraikitzen ihardun zuen buru-belarri, bertako lehen nagusi izanik; ahalegin handiak egin zituen gazteak apaiz eta misiolari izateko gertatzen; emakumeentzat Hazparden bakartegi-etxe bat eraikitzen ere aritu zen. Jansenismoaren aurka gogor egin zuen. Eragin handia izan zuen Baionako elizbarrutiko izpiritu-bizitzan eta erlijio-hezieran eta Frantziako beste zenbait elizbarrutitan ere bai.

5) *Frantses Dardan dohatsua (1733-1792)*

Isturitzeko semea, Larresoroko (Lapurdi) ikastetxe txikiko irakasle eta nagusi izan zen, Sainte Barbe ikastetxeko aitor-entzule Parisen. Bere kontzientziaren esanetan eta bere eginbeharretan zintzo iraunik, Frantziako Iraultzak sarraskitu zituen beste apaiz batzuen artean aurkitzen dugu; martiri hil zen gartzela bihurturiko Karmeldarren komentuan, 1792ko irailaren 2an. Elizak dohatsu izendatu zuen harekin martiritza jasan zuten lagunekin batera, 1926ko urriaren 17an, Isturitze bere jaioterrian eskaini zioten omenaldi-idazkunean jartzen duenez.

6) *Fermin Francisco Lasuen (1736-1803)*

Gasteiztar hau, oso gazterik sartu zen bere jaioterriko frantziskotarren komentuan. Misiolari-bokazio bizia izanik, Amerikara joan zen misio-lanetan arituz; Kalifornian burutu zuen bere misio-iharduera handiena, ebanjelioa zabaltzeko misio-tokiak eraikiz, antolatuz eta zabalduz.

7) *Eta beste zenbait pertsona ospetsuren artean, iturri bibliografikoetan aurkitzen ditugun batzu aipa ditzakegu*

Azkoitian jaiotako Josefa del SS.Sacramento (Larramendi), moja (1652-1721); Martin Ascagorta (1639-1719), Bergarakoa, apezpikua; Julian Lizardi (1659-1735), josulagun, misiolari eta martiria; Dominique d'Etcheverry (1706-1746) Urruñakoa, fun-

datzailea; Jose Arlegi, Biasterikoa, frantziskotar misiolaria; Jose Francisco Ganzabal, Gasteizkoa, frantziskotar misiolaria; Jose Santisteban, Solana-ko Muniain-goia (Nafarroa), frantziskotar misiolari eta martiria (+1756); Pedro López Mezquía, Gasteizkoa, frantziskotar misiolaria (168-1764); Francisco Ugalde (1727-1780) Larrabetzukoa (Bizkaia), josulagun misiolaria; Juan Antonio Joaquin Barrenetxe (1749-1781) Lekaroz-koa (Nafarroa), frantziskotar misiolaria Mexikon eta Estatu Batuetan, Arizona-n martiritza jasan zuelarik; Iruñeko Miguel de Pamplona (1719-1792), koronela, kaputxino misiolaria eta apezpikua; Frantziako iraultzaldian izandako euskaldun martiri batzuk, esaterako, François Dardan; Markinako Maria Ignacia de Santa Magdalena eta Ubilla, mesedetako moja; Zurbanon (Araba) jaiotako Manuel Uriarte (1720-1801), misiolari josulaguna; Juan Bautista Zengotita Bengoa (1731-1802), Berrizkoa, Puerto Rico-ko apezpikua; Francisco Antonio de Palacios, Otañakoa, frantziskotar misiolari herrikoa (1727-1804); Maria Josefa del Rosario, mesedetako moja, Ermukoa (1766-1805); etab.

XIX. MENDEA

Oso interesgarria gertatzen da Frantziako iraultza garaian izandako erlijioarekiko jasarpenaren ondoren, iparraldean katolizismoaren berrezarpena eta berbizkunde-bideetara jo zela ikustea, izpirituzko mugimenduaren gidari kristau interesgarriak izan zirelarik. XIX. mendean Baionako elizbarrutiak, parrokiatako misioi-jardunak eta bertako apezpikuek, batez ere P.T.D.d'Astros-ek (1820-1830) etabarrek bultzaturik, loraldi berri bat izan zuen. Mende honetan pertsonarik behinena Michel de Garikoits santua izan zen.

1) Dominique Elicagaray (1758-1822)

Nafarroa Behereko Ahasen jaio eta lehen ikasketak Larresoroko seminarioan ikasi ondoren, Pabe eta Tolosako unibertsita-

teetan osatu zituen. 1781.ean sagaratu zuten apaiz eta Donibane Garaziko parroko eta Teologiako irakasle izan zen Paben.

Nortasun handikoa eta adoretua izanik, ez zituen onartu iraultzak ekarritako errakuntzak eta erlijio eta gizarte-jasarpenak. Iraultza horrek nafarren azken eskubide politikoak desegin zituen; Nafarroako Estatuak elkar hartu eta protestak egin zituzten, haien artean Elicagaray ere izan zelarik. 1800.ean Espainiara ihes egin behar izan zuen. Maury kardinalaren oho-rezko bikari orokorra izan zen. 1803.ean Frantziara itzultzean, Parisera joan zen; eta 1809.ean Pabeko Akademiako buru izendatu zuten; era berean, heziera publikoko erret kontseiluko kide ere izan zen.

2) *Uriz-tar nafarrak, Iruñeko apezpikuak*

Joaquín Javier Uriz eta Lasaga (1747-1829), Sadan-en jaioa; apezpiku eginkizunetan, bere elizbarrutiaren alde egin zuen lan etengabe; hainbat pastoral-gutun idatzi zituen. Baina haren zerik nabarmenena eta xarmangarriena, katedrale, seminario kontziliar, txiro eta abarri erakutsitako neurrigabeko maitasuna edo eskuzabaltasuna izan ziren.

Pedro Cirilo Uriz eta Labairu (1779-1870), Oliteko semeak, Elizaren doktrina eta eskubideen defendatzaile sutsua izanik, Frantziara ihes egin beharra izan zuen. Leridako apezpikua eta 1861.ean Iruñekoa izan zen; 1868.eko Iraultzari buruzko hainbat pastoral-gutun interesgarri idatzi zituen; Elizbarrutiaren gobernuia egoki eraman nahiez, elizaren eta Erlijioso Ordenen berriztapena bultzatzen saiatu zen buru-belarri.

3) *Père de Ravignan (Gustave-Xavier Lacroix-Ravignan, 1795-1858)*

Baionan jaioa, magistratu karrera on bati uko eginez, Jesusen Lagundiko egin zen, nobiziatua 1822-1824. urteen artean eginez. Eta aurreko mendeko hegoaldeko josulagun euskaldunen bidea jarraituz, Frantziako hizlari sakratu ospetsuenetarikoa bi-


lakatu zen; baina ez zen hizlari soilik izan; barne-bizitza gartsua ere bizi izan zuen, XIX. mendeko lehen erdialdean, Frantziako pertsona erlijiosorik aipagarrienetarikoa izan zelarik.

4) *Arnaud Hiraboure (1805-1859)*

Baionako seme honek haurtzaroa eta gaztaroa erlijio eta fede-giroan bizi izan zituen. Haurra zela, Kalahorrara joan zen; han zuen osaba ere atzerriraturik. Baionara itzuli ondoren, San Luis Gonzaga-ren Institutioan sartu zen. Eta Aire-ko gaztetxoan seminariora joan zen. Hiru eginkizun garrantzitsu hauetan nabarmendu zen: irakasle, apaiz eta Aire eta Dax-eko apezpiku lanetan; Apezpiku zela, heziera eta adimen bizitza, apostolutza eta pastorgintza bultzatu zituen, batez ere, txiro eta gaisoenganako karitate handia agertuz. Oso txiro hil zen.

5) *Michel Garicoits santua (1797-1863)*

Michel Arnaud Garicoits eta Gratiene Etcheverry-ren semea, Ibarra, Nafarroa Beherean jaio zen, iraultza garaian Direktorioak Iparraldeko egoera erlijioso-politikoak kinka larrian jarri zuen garaian. Gorputzez haur sendoa, euskal baserriko giro sozio-erlijiosoan bizi izan zen. Euskaraz irakurten ikasi eta lehen ikasketak egin zituen. 13 urte zituela, morroi egon zen baserri batetan. Gazte zela apaiz izan nahi zuen, baina gurasoek ez zuten halakorik entzun nahi txiroak zirelako eta ikasketak ordaintzeko dirurik ez zutelako. Bai-



Mikel santua, 1861.

na bide egokia aurkitu zuen: apaiz adiskide baten morroi izatea, era horretan, bide batez ikasketak egiteko aukera izanik. Horrela aritu zen ikasten Donapaleun eta Baionan; gero Aireko seminariora eta Dax-kora aldatu zen, azken honetan filosofia eta teologiako goi-ikasketak buruturik. Irakasle izendatu zuten. Apaiz egin ondoren (1823) Kanboko parrokiara bidali zuten; hemen haren apostolutzako gar bizi-bizia agertu zuen, batez ere aitorlekuan eta «apez saindua» zeneko ospea zabaldu zen; hemen sortu zuen Jesusen Bihotz txit Santuaren ermandadea.

1825.ean Bétharrango seminariora bidalia izan zen, arlo guztietan bertako arima bilakatu zelarik: irakasle, diruzain, eta praktikan arduradun nagusia. Doktrina jansenisten aurka bihotz-bihotzez aritu zen sarri jaunartzearen alde lan eginez. Urteen buruan, apezpikuaren egitarauaren arabera ikasleak lekuz aldatzean, hutsik geratu zen Bétharram. Une horretan hasi zuen Michel-ek Jesusen Bihotz txit Santuaren Apaizen Institutuaren fundazio lana: bertako apaizek, batez ere, Michel, etengabeki sermoiak egiten, parrokia eta zentroetan zehar gogoihardunaldiak ematen eta, baita ere, eskolak eraikitzen saiatu ziren. Mugimenduak indarra hartu zuen eta urte gutxiren buruan nahikoa apaiz ziren; apezpikuak apaiz batzuk Amerikara bidaltzeko eskatu zien. Michelek ardura handia jarri zuen apaiz-misiolari hauen prestakuntzan, neurri handi batetan euren pastoralgintza, Amerikako euskaldun migrarien artean egin zutelarik. Betharrango antzinako seminarioak, santuaren ekimenez, bizitasun handia hartu zuen: santutegian Michel-en izpiritua somatzen zen. Hemen hil zen 1863.ean, 1923.ean doatsu aitortua izanik eta 1947.ean santu.

Euskaldun hau, urtean baino urtean ospe handiagoa izan duenetarikoa dugu; gihartsua, apala, Jainkoari otoitz ihardunean eta apostolutzaiharduera bizian emana; haren nortasuna oso nabarmena izan da Euskal Elizan, batez ere XIX. mendeko Iparraldeko Elizan.

6) *Balentin Berrio-Otxoa santua (1827-1867)*

Bizkaiko Elorrion jaioa, Logroñoko seminariara joan zen, 1851.ean apaiz sagaratua izanik. Bi urte geroago, Domingotarrren Ordenan sartu zen. 1857.ean Ekialde Urruneko misioietara bidali zuten. Jasarpen garaian Erdialdeko Tonkin-en zegoen,

*Berrio-
-Otxoaren
zurezko
irudia.*



apezpiku eta Aita Santuaren bikari izendatua izan zelarik. Apostolutzarako aparteko garra erakutsi zuen; klandestinitateko jazarpen nagusiko aldian zehar, kristau-familien etxeetan ezkutu-gordeka ihardun behar izan zuen. Baina azkenean atxilotua izan ondoren, lepoa moztu zioten Hai-Douong-en (Vietnam) 1861.ean. Martiri izanik, 1906.ean doatsu aitortua izan zen eta 1988.ean santu.

7) *Louis Edouard Cestac (1801-1868)*

Baionan jaio zen eta Michel Garikoits-en ikaskide izan zen Aire-ko seminarioan. 1825.ean sagaratu zuten apaiz. Apaiz ospetsu hau, beste hainbat eginkizunen artean, «Notre-Dame-du-Refuge» zeritzana Anglet-en eta «Congregation des Servantes de Marie» eraikitzen aritu zen, azken hau, batez ere gizatalde txiro, baztertu, umezurtz etabarri hezkuntza eta irakaskuntza emateko zereginaz. Epe labur batetan, kongregazioak berrogeitamar bat eskola eta abar eraiki zituen. Lan neketsu horretan, haren arreba Elise Cestac, Kongregazioko arduradun nagusiak lagundu zion. Cestac Baionako gizon handienetarikoa zen, garai gogorretan Ebanjelioa indar handiz bizi izan zuena; haren lanak katolizismoa Ipar Euskal Herrian berrindartzen lagundu zuen.

8) *Esteban de Adoain (1808-1880)*


Nafarroako Adoainen jaioa. 1828.ean Kaputxinoen Ordenako egin zen Zintronikon. 1832.ean apaiz sagaratua. Esklaustrazio-dekretuaren ondorioz, 1839.ean, Italiara joan behar izan zuen, han sermoigintzan ihardunik. Hiru urte geroago, Hegoamerikara bidalia izan zen, buru-belarri misio-lanetan aritu zelarik. 1845.ean Europara itzuli zen, hain zuzen ere Ustaritz-era; 1847.ean berriro misioi-lanari ekiteko, Ordena Venezuela, Kuba, Gautemala, El Salvador eta abarretan hedatzen saiatuz. Eta Europara itzultzerakoan Baionako komentura erretiratu zen, apostolutza Nafarroan eta Gipuzkoan eginez (1874-1876). 1877.ean Andalusiara joan zen bere Ordenaren berrezarkuntza lanetara. Santutasun ospea zuela hil zen.

9) *Santa Vicenta Maria Lopez y Vicuña (1847-1890)*

Nafarroako Kaskanteko alaba zen; haurtzarotik hartu zuen kristau heziera zuzena; ikasketak Madril-en egin zituen irakasle partikularren bidez. Haziz joan zen haregan erlijio-izpiritua. Eta gogo-ihardun batzuk egin ondoren (1868), eginkizun handi batetarako deitua zela ikusi zuen: etxerik etxeko zerbitzurako, «Maria Sortzez Garbiaren Alabak» taldearen fundatzaile bilakatu zen; neskatilak bildu zituen eta 1869.ean Madril-en komunitate-bizitza egiten hasi. Eta beste etxe batzuk eraiki zituen, Zaragoza-n (1876), Jerez de la Frontera-n (1877), Sevilla-n, Bartzelonan eta abarretan.

10) *Charles
Lavigerie
(1825-1892)*

Baionan jaioa, Chardannet-eko San Nikolas seminarioan (Parisen) sartu zen guraso-en gogoko ezela. Gero Sulpizio santuarenean jarraitu zuen ikasten. 1848.ean egin zen apaiz. Eliz Historiaren irakasle izan zen Sorbonan; jansenismoaren uste okerrak agerian jarri zituen. Beti katolizismoaren eta zu-



zenbidearen defendatzaile sutsua izan zen, apostolutza-garrez, Erromako Rota auzitegian lan egin zuen; geroago, 37 urte zituela, Nancy-ko apezpiku izan zen. Gizon ausarta eta txiroenganako eskuzabala, buru-belarri aritu zen haiei laguntzen.

Alger-eko artzapezpiku zela, misio eta gizarte-lan izugarria burutu zuen txiro eta behartsuen alde: Afrikan kristautasunari kaltea egiten zion frantsez botere politikoaren aurka burukatu zuen; Napoleon III.aren aurka ere bai. Izurriteen ondorioz, gabezia gorrian zeuden txiro eta haurrei gizarte eta ebanjelio-arloan laguntzeko, geroago «Aita Zuriak» deituko zirenen seminarioa eraiki zuen, eta, era berean, emakumeen kongregazioa (Ahizpa Zuriak) ere fundatu zuen. 1882.ean Leon XIII.ak kardinale izendatu zuen. 1888.ean esklabutzaaren aurkako kanpaina antolatu zuen Europan, nahiko arrakastatsua.

Karitatez betea eta Elizaren eta txiroen aldeko apostolutzan borondatetsua izan zen gizon unibertsal hau 1892.ean hil zen izugarritzko lana burutu eta gero.

11) Auguste Etchecopar (1830-1897)

Euskaldun hau Donapaleun (Nafarroa Beherean) jaio zen. 1854.ean apaiz sagaratua. Michel Garikoits santuak eraikitako kongregazioan (Gongregation des Prêtres du Sacre-Coeur de Jesus de Bétharram) sartu zen; laster izendatu zuten apaizgaien maisu eta kongreazioko gidari. 1863.ean Michel hil zenean, Kongregazioa oso egoera larrian aurkitzen zen apezpikua aurka zuelako. Une zail horretan Etchecopar-ek behin betiko finkatu zuen; 1874.ean Nagusi Orokorra izendatu zuten, kargu horretan heriotzerarte iraunik. Kongregazioan izan zuen ihar-duera hain handia izanik, «bigarren eratzaille» edo «bigarren Garikoits» deitua izan zen. Haren birtuteak zirela eta, santutzat zuten. Etchecopar-ek elizbarrutian eta munduan zehar (bere misiolarien bidez) izandako eragipenagatik goi lekua merezi du XIX. mendeko eliza katolikoaren berrikuntzan.

12) Rafaela Ibarra Aranbarri doatsua (1843-1900)

Bilbon jaiotako hau guraso aberatsen alaba zen. Kristau heziera hartu zuen. 18 urte zituela Jose Villalonga-rekin ezkondu zen. Bere bost seme-alaben (beste bi txikitan hil zitzaizkion) eta ahizpa baten beste bost umezurtzen hezkuntza-lanetan aritu zen buru-belarri. Urteak aurrera joan ahala, areagotu egin zen harengan erlijio- -bizitza eta lagun-hurkoarenganako karitategintza: iharduera hau, berak eratutako «Aingeru Zaintzale Santuak» deituriko lekaimen Kongregazioaren bitartez bideratu zuen. 1984.ean doatsu aitortua izan zen.

13) Beste kristau ospetsu batzuk

Besteak beste, euskal Elizan nolabait gailendu diren eta haiei buruzko lan bibliografikoak ditugun hainbat pertsona gehiago aipatzen ditugu:

Francisco Javier Antonio Gardoqui (1747-1820), bilbotarra, kardinala; Jean Labartette (1744-1823) Ainhoan jaioa, misiolaria eta apezpikua; Elise Cestac (Soeur Marie Madaleine, 1811-1849), Baionakoa, bere neba L.E.Cestac-i «Notre-Dame-du-Refuge (Angelu) eta «Congregation des Servantes de Marie» izeneko fundazio-lanetan gogo biziz laguntza eman ziona; Domingo de San José (Arbizu Munarriz, 1799-1870), Garesen (Nafarroan) jaioa, Karmeldarra, Frantzian eta baita Espainian ere Ordenaren berrezarkuntzaren bultzatzaile garrantzitsuena, eginkizun horri hasiera Euskal Herrian misio-proiektzioz eman ziolarik; Juan José Areso (1787-1878), Biguezal-en (Nafarroan) jaioa, Frantziskotarra, herri-misioi ihardunean aritua, misio-proiektzioa emanez, Frantziskotarren Ordena Frantzian berrezarri zuena; F.Franchisteguy (+1882), Hazparneko semea, Baionako bikari nagusia; Dominique Iribarne (1859-1885) Orzaize-n jaioa, Vietnam-en misiolari zela martiritza jasan zuena; Jose Maria Larroka (1813-1891) domingotarra eta Vicente Manterola (1833-1891) Donostian jaioak; Jose María Lerchundi (1836-1896)

Orioko semea, Frantziskotarra, misiolari ospetsua Marokkon, arabista eta eskolen bultzatzaile sutua; Emmanuel Inchauspé (1815-1902), Zunharreta-koa (Zuberoa), Baionako bikari nagusi eta euskal idazlea; Agustin Bastres (1832-1910) Senpere-n jaioa, Belloc-eko beneditarren monastegiaren eraikitzailea; Xavier (Pierre) Mugaburu (1850-1910) Japonian misiolari eta apezpiku izan zena.

XX. MENDEA

Iparaldeko euskal elizak, iraultzak ekarritako jazarpenaren aurrean, kontraekintza bezala berriztaketan izan zuenez, Hegoaldean ere neurri batetako birbizkundea gertatu zen XIX. mendean amaieratan eta XX. mendean hasieratan, Espainiako antiklerikalismoaren eta desamortizaizoen aurka.

XX. mendeko pertsonaiak ez dira hain nabarmenak, baina ugari izan dira katolizismoa Euskal Herri barruan eta bertatik kanpora berriztatzen arituak, baita zenbait kongregazioen eratzaille izan direnak eta abar ere.

1) *Maria del Corazon de Jesus (M^a Josefa Sancho de Guerra, 1842-1912)*

Gasteizen jaio zen; oraindik gaztetxoa eta aitarik gabe gelditurik, Madrilera joan zen hezkuntza osatzera. 1860.ean Gasteizera itzuli zen, erlijio-bizimodua hartzeko asmoz, baina gaisotu egin zen. Madrileko «Mariaren Mirabeak» izeneko Kongregazioan sartu zen. Baina utzi egin zuen Kongregazioa, taldekide batzurekin Bilbon etxe bat hartuz eta «Congregación de las Siervas de Jesús de la Caridad» deritzona eratuz (1871). 1874.ean onartu zuten haren Institutua. 41 urtetan zehar nagusi orokorra izan zen, ahaleginik handienak bere menpekoak hezten eta etxe ugarien hedapena bultzatzen egin zituelarik. Zerbitzua eta karitatea ziren haren nortasunaren nahiz kongregazioaren zutabeak.

Santu baten gisa hil zen Bilbon. Haren gorpua ustelgabe geratu zen. Une honetan doatsu aitortzeko prozesua aurrera doa.

2) *Candida Maria de Jesus (Juana Josefa Cipitria Berriola, 1845-1912)*

Andoainen (Gipuzkoan) jaioa; Jainkoaren mirabe hau Jesusen Alabak (Jesuitinak) kongregazioaren eratzaillea izan zen; Kongregazio honek hasiera 1871-XII-8.ean izan zuen. Salamanca-n hil zen santu baten gisa.

3) *Ramon Zubieta (1864-1921)*

Argetas-en (Nafarroan) jaioa; domingotar egin zen. Laster Filipinetako misioetara bidali zuten, bertan apaiz egin ondoren misio-iharduera bizian aritu zelarik; Filipinetako matxinadan preso hartua izan zen, oinaze handiak jasan zituelarik. 1900.ean askatuta gero, Amerikara bidali zuten misiolari, Urubamba-ko (Peru) prefektu apostoliko (1901) eta apezpiku (1913) izendatua izan ondoren, bertan misio-zentro, kapera, eskola, sendaetxe eta abar eraikiz, izugarrizko lana burutu zuen. «Arrosario Santuko Domingotar Lekaiame Misiolariak» Kongregazioa ezarri zuen; era berean, Peruko Domingotarren Misioetako aldizkariak sortu, etab.

4) *M. Angeles Sorazu (1873-1921)*

Florencia Sorazu Aizpurua Zumaian jaioa zen; Valladolid-en Frantziskotar Kontzeptzionistetan sartu zen, bertan 1904.etik hil zen urterarte (1921) abadesa izanik. Mistikan gailendu zen lekaiame euskaldun bakarretarikoak dugu: haren idazlan eta bizitzari mistikazko izaera darie; Kristoren misterioen kontenplazioan aritutako emakumea da.

5) *Sakramentu Santuko Domingo Iturrate doatsua (1901-1927)*

Diman (Bizkaian) jaioa dugu; haurtzaroa eta gaztaroa erlijio-giro sakon eta xumean iragan zituen. 1917.ean Hirukoiztarren

jantzia hartu zuen. 1919.ean Erromara bidali zuten filosofia eta teologiako ikasketak egitera, doktoradutza lortuz. 1925.ean apaiz sagaratua izan ondoren, laster agertu zitzaion biriketako gaisotasuna, 1927.ean, 26 urte zituela, santutasunez hil zelarik. 1983.ean doatsu aitortua izan zen.

6) *Francisco Garate doatsua (1851-1929)*


Azpeitiko semea zen. Oso gaztetxo zela Urduñako Antigua-ko Andra Mariaren ikastetxera joan zen morroi. Jesusen Lagundian anaia gisa sartu zen eta Poyenne-n (Frantzia-n), eta Guardia-n (Pontevedra-n) egon ondoren, 1888.ean Deustuko unibertsitatera (Bilbora) bidali zuten, bertan heriotzerarte (1929) atezain eginkizunetan ihardun zuelarik, aparteko begikotasuna, pazientzia eta maitasuna erakutsiz. 1985.ean doatsu aitortua izan zen.

7) *Margarita M^a López de Maturana (1884-1934)*

Bilbon jaio zen; 19 urte zituela sartu zen Berrizko Mesedetako komentuan. Han sortu eta indartu zitzaion misiolari-garra (bi misiolari ospetsuk: Juan Vicente Zengotita, O.C.D. eta Jose Vidaurrazaga S.J. eraginda) eta gazteak misiolari-bide horretara bultzatu zituen eta lekaimeen zenbait misio-espeditzio gertatu Txinara, Mariana Irleetara eta abarretara. Haren Berrizko Mesedetako Lekaieme Misiolarien Kongregazioa 1930.ean onartua izan zen. Ikustaldiak egin zituen misio-lurraldeetara. Maturana, XIX. mendeko misiolari ospetsuen artekoa da. Donostian hil zen.

8) *Juan Vicente de Jesus Maria (Zengotita Bengoa) (1862-1943)*

Bizkaiko Berrizko semea dugu; Karmeldarren Ordenan sartu zen Larreako (Zornotza) komentuan. 1885.ean apaiz sagaratua; iharduera handia burutu zuen Burgos-ko komentuko nagusi zela, batez ere apostolutza-garra da azpimarratzekoa harengan; El Eco Burgalés egunkaria sortu zuen 1990.ean.



Malabar-era (India-ra) joan zen misiolari; bertan Promptuarium Canonico-Liturgicum aldizkaria sortu zuen, 1914.ean Euskal Herrira etorri arte zuzendari izanik; hemen misio-propaganda bizia burutu zuen. Obra Máxima misio-aldizkaria sortu eta zuzendu zuen Iruñean eta Donostian; hiri honetan hil zen santutasunez. Oso aurreratua dago berau doatsu aitortua izateko kausa.

9) *Aureliano del SS. Sacramento (1887-1963)*

Basaurin (Bizkaian) jaioa; oso gazte zela sartu zen Karmeldarren Ordenan, Larreako (Zornotza) nobiziatuan. Iruñean 1910.ean apaiz sagaratua izan eta bi urte barru Malabar-eko (India-ko) misioetara bidalia izan zen. Bertako semeei apaizgora eragin eta haiek gertatzen aritu zen buru- -belarri. Karmeldar Teresiarrek zuzendutako Elizbarrutien arteko Alwayeko seminario handiko irakasle izan zen; «Apaizen Eukaristi Batasuna» delakoaren zuzendari izan zen (1931-1939). India-ko apaizterian eragin handia izan zuen hau, Alwaye-n hil zen, bertan bizitzaldi luzea eman ondoren, santu handi baten sonaz hil ere.

10) *Beste zeinbait kristau ospetsu*

Badira beste batzuk ere historian zehar oihartzun handia izan dutelako, aipagarriak direnak, lan biografioak ere haietaz idatzi izan direlarik. Hona hemen:

Sor Desposorios Irigoyen Echegaray (1848-1918), Iruñekoa, Mariaren Mirabeen Institutuko lekaimea; Maria Antonio Banderes Elosegui (1898-1919), Tolosan jaioa, Jesusen Alaben Kongregaziokoa; Manuel Ignacio Santa Gruz Loidi (1842-1926), Gipuzkoako Elduaingo semea (Gipuzkoa), apaiza, soldadu-gerrari karlista ospetsua eta Amerikan misiolari izana; Cipriano Olaso Aranguren (1868-1930), iruinxemea, apaizen erakundeen bultzatzailea, «Pía Asociación Sacerdotal» delakoaren eratzzailea; Leonor Maturana de San Luis (1884-1931), Bilbon jaioa, Karitateko Karmeldar ahizpa, misio-gar handikoa, santutasunez hil zen Buenos Aires-en; Eustaquio Ilundain Esteban, Iruñekoa (1882- 1937), atzapezpikua eta kardinalea; María Gertrudis de San Pedro (Delfina Mariescurrena, +1937), Nafarroako Ezkurran jaioa, «Maria Inmaculada» Kongregazioko lekaimea; Ascensión Nicol (1868-1940), Tafallakoa, Arrosario Santuko Domingotarren eratzzailea; Sauveur Candau (1897-1955), Donibane Garazin (Nafarroa Beherean)

jaioa, Japonian misiolaria izana; Felix de la Virgen (1902-1951) Bizkaiko Errigoitikoa, Hirukoiztarra, Algortan hil zen santu ospea zuela; Cointa Jauregui Osés (1875-1954), Nafarroako Faltzes-en jaioa, «Andra Mariaren Lagundiko» lekai-mea, santutasunez hil zen Donostian; Zacarias de Santa Teresa (Salterain Vizcarra, 1887-1957), Bizkaiko Abadinoko semea, erlijioso karmeldarra, Indiako Malabar-ko misioetara bidalia izan zen eta Alwaye-eko elizbarrutien arteko seminario nagusian lan handia burutu zuen teologia, filosofia eta historia irakatsiz eta errektore karguan ihardunez; eragin handia izan du Indiako apaizteria gaztearengan; santutasunez hil zen Alwaye-n; Joseph Clément Mathieu (1882-1962), Hazparden jaioa, Aire eta Akize-ko apezpikua; Pilar Arechavaleta (1880-1973), Bilbon jaioa, «Maria Ianua Coeli» deituriko lekai-meen eratzalea; Jose María Arizmendiarieta (1915-1976), Markinan jaioa, apaiza, kooperatiben eta Lan Kide Aurrezkiaren eragile, giza ekintza handiko gizona.

11) Ospe txikiagoko batzuk

Haietaz lan biografikorik izan arren, ustez behintzat hainbeste garrantzirik ez duten beste batzuk ere aipatuko ditugu, aipatu soilik:

Laurent Apesteguy, apaiza (+1928); Candido Julian Sautu, herri-misiolaria (+1935); Pedro de Asua Mendia (+1936); Apolonia del SS. Sacramento (Lizarraga, +1936), Karitateko Karmeldarren nagusi orokorra; Chrysostome Urrutibéhéty (+1935), Frantziskotarra; Jose Eguino eta Trecu (+1938), Santander-ko apezpikua; María Margarita (M^a Luisa Aguerre, +1945), lekai-mea; María Teresalina Zubiri (+1947), Frantziskotar misiolaria; Bruno Lezaun (+1961), apaiza; Aita Patxi pasiotarra (+1974); Arcadio M^a Larraona (+1973), kardinala; Gotzon Urrutia (+1975), Klaretarra; Sagarduy (+1952), anaia pasiotarra; Faustino de San Jose (+1962), anaia karmeldarra. Misiolari apezpiku edo prefektu apostolikoak: Pedro Muñagorri (+1936), Domingotarra; Anastasio Jauregui (+1957); Francisco Aguirre (+1941),

Domingotarra; Francisco Irazola (+1945), Frantziskotarra; Eugenio Artaraz (+1947), Domingotarra; Aspe (+1960); Joaquin Arteaga (+1926), Severino de Santa Teresa (+1962), Valentin Zubizarreta (+1948) eta Luis de Santa Teresa (+1965) Karmeldarrak; Francisco Ormazabal (+1969), Leon Uriarte gotzaia (+1970) Frantzizkotarrak, etab.; Asunción Martínez (+1938), Klaratarra; Rufino Aldabalde (+1945); Sor Maria Unceta (+1971), etab.

Julen Urkiza